



Euskadik D Planari (Demokrazia, Elkarrizketa eta Eztabaida) egiten dion bigarren ekarpena

Komunikazioari buruzko estrategia europar berrirako gakoak



TESTUINGURUA

Aurten, 2007an, Erromako Ituna 1957an izenpetu zeneko 50. urtemuga ospatzen dugu. Bost hamarkada hauetan, inolako zalantzarik gabe, asko aurreratu da Europako proiektua eraikitzen. Baina ezin dugu ahaztu prozesu irekia dela eta prozesu horretan eragin handia dutela kide diren herrialdeen barne politikek, kanpoko hainbat gai —globalizazioak eta inmigrazioak, esaterako—, eta Europa eraikitzeari berari lotutako beste gai batzuek. Azken arlo horretatik, Europar Batasunaren zabalkuntza eta Frantzian eta Herbehereetan Europarentzat Konstituzio bat ezartzeko Ituna berresteko erreferendumetan emaitza txarra lortzeak izan duen eragina nabarmendu beharko genituzke. Horrek guztiak gogoeta prozesu bat eragin du erakunde komunitarioetan Europaren etorkizunaz, eta horren adierazgarri nagusia 'D Plana (Demokrazia, Elkarrizketa eta Eztabaida)' da, Europako Batzordeak abiarazitakoa (COM(2005) 494).

Europar Batasunaren etorkizunari buruzko eztabaida honek Europaren eraikuntzarekin zerkusia duten eragileen ekarpenak —ahalik eta eragile gehienen ekarpenak, jakina— hartu nahi ditu kontuan; eta 'D Planaren' testuinguru horretan Euskadik erabaki du, Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren bitartez, gogoeta egitea eta horretarako, oraingoz, bi jardunaldi antolatzea, eztabaida egiteko eta jardunaldiotan erdietsitako ondorioen berri emateko Europako Batzordeari.

Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak duela urte bete antolatu zuen lehenengo jardunaldia **'Europa XXI. mendean: Baloreak, Mugak eta Europako Herritarrak. Euskadik D Planari eginiko ekarpena'** (Bilbo, 2006ko apirilaren 11-12) izenburupean, Europar Batasunaren etorkizunari buruzko honako hiru gai hauek zehazten eta horiei erantzuten ahalegintzeko: Europako baloreak eta herritarrak, Europako eredu soziala eta ekonomikoa eta Europako mugak. Jardunaldi horren emaitza izan zen zenbait ondorio lantzea -'Euskadik D Planari egiten dion ekarpena: Europa eraikitzeke garai berri baterako 10 gako'- eta Europako Batzordeari helaraztea.

Duela gutxi, Eusko Jaurlaritzak bigarren jardunaldia antolatu du **'Komunikabideen eginkizuna Europaren eraikuntzan' (Bilbo, 2007ko maiatzaren 31)** izenburupean, eztabaida irekia bultzatzeko asmoz erakundeen ordezkarien, komunikabideen, gizarte erakundeen (gazteria, genero berdintasuna,...) eta herritarren artean prentsak Europaren eraikuntzan duen eginkizunaz; gai horretaz, hain zuzen, argitaratu du oraintsu Europako Batzordeak dokumentu hau: *'Komunikazioari buruzko politika europarraren Liburu Zuria'* (COM(2006) 35).

Eztabaida, batez ere, bi gairen inguruan izan da: batetik, Europar Batasunaren komunikazio politika; eta bestetik, Gizarte zibila, prentsa eta iritzi publikoa Europar Batasunaren etorkizunean. Gai horiei buruz eztabaidatzeko, Europar Batasunari buruzko hainbat eremutan esperientzia handia izan duten adituen (ordezkari politikoak; herri-administrazioaren ordezkariak eta komunikabideetako, gizarte zibileko eta unibertsitate-arloko ordezkariak) ekarpena izan genuen; adituok EAE bertakoak zein Europako beste herrialde batzuetatik etorritakoak izan ziren.

Jardunaldian, halaber, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleei egindako iritzi azterketa baten emaitzak aurkeztu ziren: *'Europaren eraikitze prozesua: informazioa, komunikazioa eta EAEko herritarrak'*.

Bigarren jardunaldi honek bultzatutako eztabaidatik ateratako ondorioak ere -dokumentu honetan bildutakoak, hain zuzen- Europako Batzordeari helaraziko zaizkio; erakunde honek, D Planaren bitartez (Demokrazia, Eztabaida eta Elkarrizketa), ireki duen Europar Batasunaren etorkizunari buruzko eztabaidari Euskadik egindako ekarpen gisa.

GOGOETEN EDUKIA

Europaren eraikuntzan eginkizun erabakigarria burutzen dute komunikabideek eta horren adierazgarri da Bruselan korrespontsal multzo ugaria izatea, bertatik emateko Europar Batasunaren jardueren berri. Alabaina, egia da herritarrek oso gutxi ezagutzen dutela Europa eta Europaren ideiarekiko identifikazioa txikia dela ere.

Ildo horretatik, nabarmena da aldatu egin behar dutela jarduteko era —baita pentsamoldea ere— komunikazio dinamikan inplikaturako eragile guztiek: Europar Batasuneko erakunde eta organoek; estatu eta eskualdeetako gobernuek, toki erakundeek eta gizarte zibila ordezkatzan duten erakundeek; baita komunikabideek beraiek ere; eragileen arteko komunikazioa benetakoa eta eraginkorra izan dadin azken onuradunaren mesedetan: herritarren mesedetan, alegia.

Orokorrean, behar beharrezkoa da informazio politika argia eta alor ezberdinetan ondo inplementaturakoa izatea, herritarrek benetan eta oso-osorik ezagutu dezaten, alde batetik, zer erabakitzen ari den Europar Batasuneko erakundeetan, eta bestetik, zein jarrera duten nazio, eskualde eta toki aginte publikoek, baita alderdi politikoek eta erakunde sozial eta ekonomikoek ere Europar Batasun osoari dagozkion gaiez.

Bide batez, ahalegina egin behar da Europako herritarren interesa ere eraginkor indartzeko, herritarrok Europar Batasunaren egunerokotasunean parte har dezaten gogotsu eta etengabe. Horretarako, baliabide zehatzak jarri behar dira herritarren esku, herritarrek beren ahotsa entzunarazi eta parte har dezaten eta beren ekarpenak kontuan hartu diren ala ez jakin dezaten.

Komunikazioari buruzko politika europar egokia garatzeko premisak

Beste edozein gogoeta egin aurretik, Europako benetako dimentsioa proiektatzeko komunikazio politika eraginkorra izan dadin, oinarritzko zenbait premisatatik abiatu behar da eta inplikaturako eragile guztiek bat etorri behar dute premisa horietan.

Horretarako, bistan da abiaraziko den edozein komunikazio jarduerak honako alde hauek kontuan hartu behar dituela eta, betiere, aldeok sendotzen lagundu beharko dituela:

- a) Europaren ikuskera: Europaren ikusmolde komuna lortzea.
- b) Europar Batasunaren izaera: Europa eraikitzeko proiektuaren muina ezagutaraztea.

a) Europaren ikuskera: Europaren ikusmolde komuna lortzea.

Komunikabideek jabetu behar dute, eta onartu, eginkizun garrantzitsua dutela herritarrei helarazteko ideia hau: gabeziak izan arren, Europar Batasuna leku ona da bizitzeko, elkarrekin bizitzeko. Europa gizarteari hurbiltzeko modu bat da jakinaraztea Europak nolako eragina duen gure egunerokotasunean.

Komunikabideek gizarteari helarazi beharko lioketen beste ideia garrantzitsu bat "Aniztasunean bat eginik" goiburupean datza; izan ere, gure nazio, eskualde eta toki nortasunak alde batera utzi gabe, nabarmendu behar diren balore eta helburu komunak ditugu europarrok. Ildo horretan, komunikabideek gizarteratze eragilean eginkizuna bete beharko lukete, Europako nazioez gaindiko informazioen eroaleak eta Europa osoko herritarren arteko komunikazioaren eraikitzaileak izan beharko lukete.

Aginte publikoek honako ideia hau zabaltzeko behar dituzte komunikabideak: Europa "hurbil" dago, herritarren galderei erantzuna emateko eta informazio eskariei bide emateko joan-etorriko bidean: tokiko gaietatik Europara eta Europatik tokikoetara. Jarduteko bi gune horiek osagarriak dira eta era sinkronizatuan jardun beharko lukete, herritarrek Europari buruzko ideia koherentea jaso dezaten.

Alderdi horretatik, komunikabideek herrialde bakoitzaren kezken berri eman beharko lukete, eta interes komunak nahiz diferentziak ezagutarazi beharko lituzkete; horrela, toki ezberdinetako herritarrek aukera izango lukete beren esperientziak eta kezak benetan ezagutzeko eta konpartitzeko eta, 'bestea hobeto ezagutzeak' eraginda, kontzientzia europazalea sortzen lagunduko lukete.

Adibide modura, Europaren ikusmolde komun hori dela eta, ez dirudi logikoa komunikabide gehienek Europar Batasunari buruzko gaiak egunkarietako edota irrati edo telebistetako informatiboen "Nazioartekoa" sailean aztertzea.

b) Europar Batasunaren izaera: Europa eraikitzeko proiektuaren muina ezagutaraztea

'Europa politikoa' berreskuratzea eta Europar Batasuna geldirik dagoen proiektua ez izatea -etengabe aldatzen ari dena baizik-: horra hor garatu beharreko funtsezko bi ideia. Ezinbestekoa da komunikabideek informazio probetxugarriak eta gaurkotasuna dutenak ematea, baina Europar Batasuna eraikitzeko proiektu politikoaren muina ere ezagutarazi behar dute.

Hona hemen zenbait alderdi, azpimarratu beharko liratekeenak eta Europar Batasunaren izaera herritarrek hobeto ulertzen lagun dezaketenak: Europar Batasunaren ezaugarri den "nazioz gaindiko" izaera, 'lurraldetasunaren' ideia aurka; eta Europar Batasunak erronka berriei egokitzeko duen ahalmena, bere baitan guztiz bateragarriak baitira, adibidez, zabalkuntzaren eta sakontzearen alderdiak.

Izan ere, Europar Batasuna guztiz eredu baliagarria izan daiteke, globalizazioaren testuinguruan, funtsezko zeregina betetzeko hainbat alorretan, hala nola, zabalkuntzan, gizartea kohesionatzeko politikan, kanpo harremanetan, klimaren aldaketan, energian edo inmigrazioan.

Dena den, Informazioaren Gizartea deitzen diogun honetan, 'informazioaren kalitatea' nabarmendu beharko litzateke, ez 'informazioaren kantitatea', herritarrek interes handiagoa izan dezaten; eta horrek, jakina, gizartea gehiago inplikatzeko eta gehiago parte hartzea ekarriko luke. Bestalde, ez litzateke inolaz ere erori beharko erakunde propaganda hutsa egiteko tentaldian.

Parte hartzeko dimentsio horizontalean oinarritutako komunikazio eredu europar bat

Komunikabideek funtsezko eginkizuna bete beharko lukete gizarteari helarazteko gorago aipatutako ideia horiek, parte hartzeko informazio horizontala erabiliz eta Europaren ideia ezagutarazteko baliabide eta tresna egokiak baliatuz.

a) Komunikazioari buruzko europar politikaren egileak eta jasotzaileak

Asko dira komunikazioari buruzko europar politikaren egileak: erakunde publikoak, alderdi politikoak, herritarren mugimenduak, enpresa erakundeak, ikastetxeak eta

unibertsitateak, eta abar; eta hainbat eremutan ari dira: komunitarioan, nazionalen, eskualdean eta toki eremuan. Ezinbestekoa da jakitea egile horiek elkarren menpe daudela eta elkarren artean ondo koordinatuta egon behar dutela. Europak ahalmen sortzailea behar du eta, alderdi horretatik, gogoan hartu behar ditugu sinergien mugimenduak, jakinik jarduera koordinatuaren bitartez lortutako emaitza askoz handiagoa izango dela banakako jarduerak gehitzearena baino.

Dinamika horretan, Europako gaitan espezializatutako kazetariak trebatu behar dira, eta are gehiago, europar klabeen informatzen duten europar komunikabideak behar ditugu, berriak iritzi korrante bati edo nazio baten komenientziari egokitzeko tentaldian erori gabe.

Beste ildo batetik, Europar Batasunaren alorrean, subsidiarotasun-printzipioak ere badu eragina komunikazio politika dela eta. Izan ere, egile guztien jardun esparruak errespetatu behar dira, esparru horietan egileok aukera baitaude europar proiektu komunari buruzko ekimenak eta ekarpenak lantzeko.

Azkenik, ezin dugu ahaztu komunikazioari buruzko europar politikaren azken jasotzailea europar gizartea bera dela, zentsu zabalean ulertuta; horregatik, komunikazio erraz eta eraginkorragoa bilatzeko, ezin dugu alde batera utzi gizarte zibilaren elkarte eta erakundeek funtsezko zeregina bete behar dutela. Izan ere, herritarrak bat datoz gizarte mugimenduekin; eta mugimenduok herritarrentzako berrien biderkatzaileak ez ezik ideiak azaltzeko plataformak ere badirenez, funtsezko bideak dira Europa zer den jakinarazteko eta Europar Batasunarekiko interesa sorrarazteko. Beraz, alderdi honetan ere baliozkotasun osoa du 'parte hartze demokraziaren' eta 'ordezkatzeko demokraziaren' printzipioak elkartzeak.

b) Europar iritzi publikoa eratzeko baliabideak

Komunikabideen eginkizuna ez da zerbaiten berri ematea bakarrik -komunikatzea zerbaiten berri ematea baino zerbait gehiago da-, eta informazioaren kalitate handiagoa lortzeko, europar iritzi publiko bat eratzeko benetako aukera duten deigarri europartzaileak aurkitu eta indartu behar dira.

Idea horren ildotik, oso garrantzitsua da Europaren eraikuntza prozesuan sartzea gazteria. Horretarako, hezkuntzan eta kulturaren esku hartu beharko luke Europar Batasunak indar guztiz. Beraz, heziketa jarduera nahiz gaiak sustatzea da giltzarrietako bat Europaren ideia komunikatzeko haurtzarotik hasita. Kultura dela eta, hainbat adierazpen -zinemagintza, literaturgintza, musikagintza eta abar, esaterako-, kultura

aniztasunaren barruko beste errealitate batzuk ezagutzera eta Europako kultura esparru bat eratzera bultzatzeaz gain, lagungarri dira aisialditik abiatuta komunikazioa ezartzeko eta, testuinguru ludiko batetik, epe ertainean europar iritzi publikoa eratzeko.

Elkartasunak, bestalde, eginkizun erabakigarria du europar kontzientzia eratzeko eta Europako herritarrek aktiboak, kosmopolitak eta unibertsalak izan daitezen.

Besteak beste, baliabide horien bitartez lortuko dugu bizitza politikoa bizitza publikoari hurbiltzea eta herritarrek nabaritutako dute gai direla informazioa biltzeko ez ezik politika ezberdinak eratzeko laguntzeko eta parte hartzeko ere.

c) Komunikazio politikaren tresnak

Komunikabideek hainbat tresna dituzte herritarrei gai bat komunikatzeko: idatzizko prentsa, irratia, telebista, internet, eta abar; eta badakigu alde nabarmenak daudela jasotzaileen ezaugarrien artean, jasotzaileengana iristeko erabili den bidearen arabera, beti ere. Izan ere, telebistaren bitartez ez da informazioa bilatzen, aurkitu egiten da; idatzizko prentsaren eta irratia bitartez, ordea, informazio zehatz bat eskuratzen duen erabiltzaileak interes handiagoa erakusten du informazio horrekiko. Beraz, komunikazio estrategiek eta edukiek kasu bakoitzari egokituak izan beharko dute, erabilitako tresnaren arabera, betiere.

Testuinguru horretan, ezin dugu ahaztu informazio eta komunikazio teknologia berriak -eta batez ere, Internet-, globalizazioa bultzatzeaz gain, erabakigarriak direla oraingo gizartea eratzeko.

Izan ere, internet eta ikus-entzunezkoak dira ahalmen handiena dutenak komunikazioari buruzko politika europarra burutzeko. Internet dela eta, ezin gara geratu Interneten dimentsio 'birtualean', Internetek elkarrizketa bermatzen duen truke tresna ere izan behar du. Alderdi horretatik, web guneak indartu behar dira, hala europar erakundeek nola gainontzeko eragileenak, horiek eguneratzen eta erraz eskuratzen ahaleginduz.

Ikus-entzunezkoak direla eta, Europa irudikatzen saio gehiago eskaini behar dira; Europaren hainbat irudi aurkitu behar dira, herritarrek Europa bere eguneroko dinamikarekin identifikatzen dutela erakusten dutenak, honela Europaren koherentzia nabarmenduz.

AZKEN ONDORIOAK

Ondoren, Europar Batasunaren etorkizunari buruzko eztabaidari egindako ekarpen gisa Euskadin egin den bigarren gogoeta prozesuan lortutako gako nagusiak datoz, **komunikazioari buruzko europar estrategia berriari buruzkoak** hain zuzen:

- Komunikabideek demokraziaren zutabe nagusienetako bat osatzen dute, Europar Batasunaren funtsezko balioetako bat, hain zuzen; eta herritarrengan oinarrituta benetako demokraziak kontuan hartu behar ditu ordezkatzearen alderdia baita parte hartzearena ere. Ildo horretan, komunikabideek mentalizatu behar dute eginkizun garrantzitsua burutu behar dutela informazioa transmititzen ez ezik herritarren interesa eta parte hartzea indartzen ere.
- Komunikabideek Europaren oinarri berritzailea ezagutarazten lagundu behar dute. Horretarako, Europar Batasunaren erakundeen funtzionamendua azaltzeak baino garrantzi handiagoa du benetako balio europarrak eta horiek gure eguneroko bizitzan duten isla herritarrei transmititzeak; hori guztia aniztasuna albora utzi gabe, aniztasuna Europaren ideari atxikita baitago ('Aniztasunean bat eginik').
- Europako erakundeek koordinatu egin behar dute herritarrekin komunikatzeko borondatea eta komunikabide europazaleentzako gune bat bultzatu behar dute. Lan horrek Europako nazioz gaindiko informazioaren eroaleak izaten eta Europa osoko herritarren arteko komunikazioa eratzen lagunduko die komunikabideei.
- Komunikazioari buruzko politika europarrak kontuan hartu behar du komunikabideez eta Europar Batasuneko erakundeek gain badirela beste egile batzuk tartean; subsidiarotasun-printzipioak ere eragina du alor horretan. Gainera, herritarrengandik hurbil egoteagatik, arreta berezia eskaini behar zaizkie gizarte erakundeak. Alderdi horretatik, komunikabideek zabaldu egin behar dute arreta eremua; konturatu behar dute deszentralizatutako buruzagitza politikoa eratzen ari dela eta gizarteko estamentu ezberdinetako pertsonen Europaren onurarako egindako ekarpenak kontuan hartu eta horien berri eman behar dute.
- Arduradun politikoez, maila desberdinetan, ideiak argi eman behar dituzte, propagandan eta nahasmen interesatuan erori gabe, komunikabideek beren lana herritarren zerbitzura dagoela ikus dezaten, eta ez haien interes alderdikoien zerbitzura.

- Komunikazioari buruzko politika europarrak enfasi berezia jarri beharko luke gazterian eta, bereziki, kulturaren eremuan eta heziketarenean.
- Komunikazioari buruzko politika europarrak berariaz hartu beharko luke kontuan komunikabide guztiek ez dutela izaera bera —idatzizko prentsa, irratia, telebista, eta abar— horiei dagozkien estrategiak diseinatzerakoan. Bereziki, Interneten aukerak eta etorkizuna hartu beharko lirateke kontuan eta horiek egoki erabili.